

Latente dauden memoriak

Aztarna ikusezinak euskal gatazkan

Laburpena

Euskal Herrian, gatazka politikoak utzi dituen askotariko aztarnak ez dira beti ikusgarriak izan. Hiri zein herrietako espazioetan agerikoak dira konfliktoak utzitako seinaleak, baina badira beste asko, ikusezintasunaren ordenan daudenak. Memorien arteko hierarkiak ulertzeinportantea da objektuek, irudiek edo mezuek lortzen duten legitimitate-maila aztertzekeo.

Gako-hitzak: Euskal gatazka; memoria subalternoak; gorputz-memoria; tortura; irudi ezinduk

Abstract

In Basque Country, the traces left by the political conflict have not always been visible. In towns and cities, the signs of conflict accumulate, but many others exist in an invisible order. It is necessary to understand how hierarchies are articulated in order to analyse the degree of legitimacy of the objects, images or discourses.

Keywords: Basque conflict; subaltern memories; corporal memory; torture; impotent images



Arantza Santesteban Perez

Historian lizentziatua eta Zineman diplomatua

Bidaltze data: 2019-04-12
Onartze data: 2019-05-30



Sarrera: Gatazka politiko eta armatuaren aztarnak

Euskal gatazka¹ deiturikoak ageriko markak utzi ditu Euskal Herriko hirietan eta herrietan². Ohikoak dira, espazio publikoan, oroigarriak zein margoketak, kaleen izendegietan eta, oro har, memoria espazialaren eremuan aztarna ikusgarri hauek nabarmentzea. Alabaina, gatazkaren ondorioek ez dituzte soilik biolentzia horren markak agerikoak diren espazioetan utzi, badira ikusezinak diren bestelako zeinuak ere. Gatazka politiko eta armatuaren ulerkeran sakontzeko ezinbestekoa zaigu, besteak beste, gorputzaren dimentsioa kontuan hartzea (Esteban, 2018), halaxe gorputzen baitira bestelako ordena batean dauden ondorio fisiko zein emozionalak. Era berean, hirietako eredu arkitektoniko orokortuak ez du beti ahalbidetzen jendeak gatazkarekiko izan dituen bizipen ezberdin eta askotarikoak ageriko egin ahal izatea.

Memoria-ikasketetan Enzo Traversok aipatzen duen bezala, badira «memoria ofizialak, estatueta instituzioek elikatzen dituztenak, eta memoria azpiratuak, ezkutatuak edota debekatuak. Oroitzapen baten ikusgarritasuna eta aitortza, horren jabegoa dutenen indarraren arabera da. Beste modu batean esanda, badira “memoria gogorak” bai

eta “memoria ahulak” ere» (Traverso, 2005). Bide beretik ere, Astrid Assmannen memoria kulturalaren analisisiaz hitz egiten du, hain justu, memoria ezberdinen arteko gatazka eta haien arteko botere-erlazioei buruz. Memoria kanonikoak eta artxibistikoak daudela azpimarratzen du; memoria kanonikoek esparru kultural bateko memoria gogoratu nagusia irudikatuko lukete, hots, memoriaren kanonean sartutakoak lirateke, eta gainontzeko memoria gogoratuak artxibaturik geratuko lirateke «modu latente batean» (Assmann, 2010).

Euskal gizartean konfrontazio politikoak sortu duen indarkeria-agerkari oro «memoria gogoraren» parametroetan neurtua izan da, zeinak kontuan hartzen dituen ikusgarriak eta onarpena duten aztarnak. Halere, hori ez litzateke nahikoa konflikto baten memoria biltzeko. Perez pare aurkitzen ditugu gaur egun memoria ofizialetan lekurik izan ez eta, hartara, ikusezinak bihurtu diren beste dimentsio batzuk, besteak beste, gorputza, bere aldaera organiko zein afektiboan eta «memoria ahulari» dagozkion aztarnak biltzen dituen.

Intxaurrondoko kuartela eta memoriaren arteko erlazioak

Intxaurrondo Guardia Zibilaren kuartela da, Donostiko izen bereko Intxaurrondo auzoan kokatua. Euskal gatazkaren inguruko kontaeretan, emari handiko lekua izan da. Sinbolikoki gauza asko ordezkatzeko dituen espazioa da; bertako 100 bat guardia zibil erahil zituen ETAk aurreko hamarkadetan. Era berean, Lege Antiterroristaren ondorioz

1 Artikulu honetan, euskal gatazka deituriko garai historikoa hartuko da erreferentziatzat. Zehazki ETaren sorrerarekin tenporalizatu izan da epe horren hasiera, 1959an, eta amaiera, 2011n erakunde armatuak iragarri zuen ekintza armatuaren betiereko amaierarekin.

2 Kontuan hartuko da Euskal Herria bezala ulertutako espazio kultural eta geografikoa, zehazki esanda, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea Espainiako Estatuan, eta Frantziako Estatuari dagokion Euskal Eremua.

atxilotutako pertsona askok salatu izan dituzten tortura-kasuetako askok bertan izan dute leku³. 2018 urtearen hasieran, museo txiki bat inauguratu zuten kuartelaren barruan⁴. Museo horretan aurkitu daitezke erahildakoen zuri-beltzezko argazkiak eta borroka antiterroristaren hainbat sinbolo. *El Independiente* agerkari digitalean, 2018ko urtarrilaren 13ko edizioan, museo horretan aurki daitezkeen objektu oroigarrien deskribapen bat egin zuten, honakoa nabarmenduz: «En el sencillo “museo” habilitado en el cuartel los agentes también muestran orgullosos paneles con imágenes en los que se muestran elementos como los grilletes con los que fue esposado “Kubati” tras su arresto el 25 de noviembre de 1987. (...) Además, un televisor repite imágenes de los seguimientos que los servicios de información hacían a miembros de ETA como “Kantauri” o “Txeroki”. (...) Junto a él una vitrina muestra dos “huchas de apoyo a presos” incautadas en las Herriko Tabernas, ejemplares del Zutabe, —la publicación interna que editaba ETA—, los morteros “jotake” con los que atacaban el cuartel o documentos incautados a la banda» (I. irudia). Kasu honetan, ikusten da nola memoriaren objektuetan biltzen diren elementu propioak zein «etsaiari» dagozkionak: hildakoen argazkiak eta ekintza armatuetako protagonisten irudiak elkarrekin bizi dira, baita «etsaiari» dagozkion objektu sinbolikoekin ere. Bestelako testuinguru batean «jotake» mortero horiek, edota presoan aldeko dirua jasotzeko itsulapiko horiek, ezingo lirakeke erakutsi, terrorismoaren aldeko aldarria egiten dutela argudiatuta⁵. Alabaina, Guardia Zibilaren kuartelak, instituzio ofiziala den neurrian, objektu horiek bestelako marko batean inskribatzen ditu eta diskurtsoa egiteko erabiltzen ditu; hala, latente egotetik, onartutako memoria izatera iragaten dira.

Baina Intxaurrendok badu bestelako interesik memoriaren hierarkiari aztertzerakoan. Esan bezala, Euskal Memoriak baieztatu ahal izan dituen tortura-kasuetatik asko, kuartel horretan eman ziren. Halere, oso gutxi izan dira epaitegietara bidea egin duten tortura-salaketak. Eraikinak duen kokalekuagatik, pertsona askoren eguneroko ibilbidean, ohikoa bihurtzen da bertatik pasatzea, besteak beste, Donostialdeko merkataritza-gune nagusia den Garberara joan nahi izatekotan. Pentsa daiteke, bertan torturak jasandako hainbat pertsonak, kuarteletik gertu pasatu behar izatea errutinazkoak diren euren ibilbideetan. Hala, ibilbide horietan gatazkaren ondorio ikusezin horiek aktibatuko lirakeke, bereziki, espazioak biltzen duen izaera emozionalean. Horrela bada, zer senti dezake torturatua izanaren errekonozimendua jaso ez, eta egunerokoan jazarria izan den tokiaren ondotik pasatzen denak?

3 Euskal Memoria erakundeak, Euskadiko Kriminologia Departamenduak maneiatzen dituen datuetan oinarrituz, 5.700 tortura-kasu inguru egiaztatuta ditu www.euskalmemoria.eus atari digitalean agertzen den bezala. Horieta 2.348 Guardia Zibilaren esku, pentsatzekoa da Intxaurrendoko izatea horietako asko eman ziren tokia.

4 <<https://www.elindependiente.com/politica/2018/01/13/los-100-de-intxaurrendoko-el-cuartel-de-la-lucha-contra-eta/>> egunkari digitalean aurkitutako artikulua hau hartu da abiapuntu museo horretaz aritzeko.

5 Ezaguna da Lege Antiterroristaren araudiek, «Terrorismoaren aldeko aldarria» deituriko delituaren ondorioz, presoan aldeko edozein sinbolo edo atxikimendu erakusteagatik zehaztu zuten eragin-esparrua.

Aurreko puntura itzultzea eskatzen digu galdera horrek. Memoria subalernoaren auzira, hain zuzen ere. Izan ere, tortura-kasuek dokumentatuta daude, bilduta daude, fotografiatuta ere bai, artxibatuta. Baina oraindik orain ez dago tortura egin izan delako diskurtso publiko orokortu eta onartu bat. Tabua izaten jarraitzen du. Hartara, torturatutako pertsona batek Intxaurrendoko kuarteletik gertu pasatzen den bakoitzean, publikoki ez duen errekonozimendua — memoria hegemonikoaren logikan kokatua — modu intimoa eta pribatua baino ezingo du bizi. Oroimen hori preso dago norberaren gorputz-gogoan, ezin du kanpora atera, ezin da modu publikoan adierazi, eta adierazten badu ere, publiko orokorrak ez du entzung⁶. Hala, gorputza izango litzateke memoria subalernoaren kokaleku nagusia eta espazioan barreiatuta dauden ageriko aztarnen bidez aktibatuko litzateke.



1. irudia ~
Presoen aldeko
itsulapikoak
Iturria ~
El Independiente.

Irudi ezindua: zilegitasunaren inguruko tentsioak

Objektuekin gertatzen dena, irudiekin ere gertatu ohi da. Izan ere, memoria ez hegemonikoak, latente daudenak, sarritan izan ohi dira bere zilegitasunaren alde tentsioan dauden irudiak. Euskal gatazka deiturikoan, irudi asko eta asko sortu dira, oro har, estatuaren indarkeriaren zeinuak salatu eta gizartearen kontzientziazioan eragin nahi izan dutenak. Lege Antiterroristak⁷ atxilotutako pertsona bost egunetan zehar poliziaren esku uzten zuten, kanpoaldearekiko inolako harremanik gabe, eta egoera ziurgabe horretan gertatzen ziren aipatu diren tortura-kasu gehienak. Hala, aztarnarik gabe, tortura eta inkomunikazio-egoera horien onarpen publikorik gabe, zaila litzateke onartutako memoria bat osatzea. Kasu gehienetan, zenbait gizarte-erakundek bildu

6 Gayatri Spivakek *Can the Subaltern Speak* (2010) lanean proposatzen dituen argudioen arabera, subjektu subalernoek hitz egiten badute ere, ez dira entzunak izateko gai. Horren arabera, subjektu azpiratuek, hitz egiten badute ere, ez dira entzunak izateko gauza. Diskurtso hegemonikoek ez dituzte klase subalernoak onartzen. Horregatik, memoria subalernoak artxiiboaren parte lirakeke; hitz egiten dute edo idatzirik daude, baina artxibaturik, egoera latente batean, bizitasunik gabe, norbaitek berreskuratu eta birsortuko dituen esperoan.

7 Eboluzio ezberdinak izan dituen arren, Lege Antiterroristak 1988an hartu zuten forma. Horren arabera, lege horren eraginez atxilotutako pertsonari inkomunikazio-epealdia ezartzen zitzaion, zeinaren arabera, «kanpoaldearekin» inolako kontakturik izatea galarazten zitzaion.

izan dituzten tortura-testigantzak daude, baina Spivak-en argudioak berriro ere ekarriz, kontatera horiek ez dira entzunak izateko gauza, memoria subalternoren parte lirateke.

Egiatzotasunaren proba gisa, sarritan erabili izan da irudia. Irudiari ematen zaion ahalmena, errealitatea edo objektibotasuna irudikatzearena da. Tesi horren arabera, irudiak egia ordezkatzeko luke, nolabait, bestelako argudioek ez duten indarra —hitzekoak, besteak beste— irudiek izango balute bezala. Halere, auzi hau nahikoa eztabaidatua izan da errepresentazio eta irudiaren inguruko eztabaidetan. Susan Sontag-ek⁸ esan zuen, moralki argazkiaren eraginez afektatzea lortzen duena kontzientzia politiko esanguratsu baten existentzia dela. Alegia, ez dela nahikoa irudiaren presentziarekin, beste zerbait, kontzientzia sentsible bat behar dela afektatua izateko.

Euskal gatazkaren testuinguruan, adibide esanguratsu bat da Unai Romanoren torturak erakusten zituzten irudiak. Irudi horiek, inkomunikazio-erregimen horren barruan, modu ezohiko eta ezjakin batean filtratu ziren⁹. Nolabait esatearren, irudi horiek ikusezintasunaren erregimenari ihes egin zioten, publikora hedatu arte. Didi Hubermanek, *Imágenes pese a todo: memoria visual del Holocausto* saiakeran irudi hauek duten garrantziaz hitz egiten du. Liburu horretan aztertzen ditu Auswitcheko gas-kameretan lan egiten zuten preso juduek ateratako lau argazki. Argazki horiek lortu zuten mundu guztiari bertan gertatzen zen lazturaren berri ematea: gas-kameretara sartzeaz zeuden emakume taldearen irudiak dira, baita gaseatu berritan gorputzen kea erakusten duten argazkiak ere (2. irudia). Hubermanek aztertzen du argazki horien inpaktu eskasa publikatu zireneko unean. Jendeak ez omen zuen sinisten, ez omen zuen elementu nahikorik aurkitzen, irudi horiek erakusten zuten izua ulertzeko. Beste behin ere, publiko zabalak ez zuen kontzientzia nabarmenik irudi horien esanahia ulertzeko. Argazkiek erakusten zuten ustezko «objektibotasun» horren eragin-gaitasuna zalantzan geratzen da modu horretan.

Unai Romanoren auzira itzulita, halako zerbait gertatu zela pentsa daiteke. Alde batetik, irudi horiek erakusten zuten ubeldutako aurpegi handitu bat, nabarmenki erasotua, baina jende askoren kontzientzian ez zuen lortu inpakturik. Are gehiago, hainbat hedabide birtualetan, irudi horien ustezko asmakeriaz eztabaidatzen zen¹⁰. Berriro ere, irudiak eta haien zilegitasunaren auzia aurkitzen dugu, eta aipatu kasuetan, memoria zilegi bat eraikitzeke duten inpotentziaz. Irudi horiek ez dira gai, bere horretan, zilegizko diskurtso bat osatzeko, are gutxiago, memoria ofiziala eraikitzeke, irudi ezinduak dira.

Ondorioak: espazio ezinduetatik, objektu eta irudi ezinduetara

Hala, espazioan eta arkitekturan aurkitzen ditugun ezintasunak memoria jakin batzuek onarpena izan dezaten, irudietan ere aurkitzen ditugu. Horregatik, ondorioztatu liteke, testuinguruak eta espazioak, memoria-objektuek zein irudiek, harreman estua dutela esakunearen lekuarekin eta haren zilegitasunarekin; baita irudikatutakoaren estatusarekin edo diskurtso dominanteekin ere. Hala, tentsio etengabea dauden zeinuak dira, torturatutako gorputzen irudiak edota bestelako ordena batean, gorputz-gogoan, modu ikusezin batean artxibatzen diren sentsazioak eta emozioak. Latente dauden seinale hauek guztiak izan lezakete modua ofizializatzeko edo onartuak izateko, baina horretarako beharrezkoa dirudi testuinguruari erreparatzea eta memoria-objektu hauen arteko harremanak aztertzea.

///

Bibliografia

Huberman, D. (2004): *Imágenes pese a todo: Memoria visual del Holocausto*, Paidós Ibérica, Madril.

Sontag, S. (2006): *Sobre la fotografía*, Alfaguara, Madril.

Spivak, G. (2009): *¿Pueden hablar los subalternos?*, Traducción y edición crítica de Manuel Asensi Pérez, Museu d'Art Contemporani de Barcelona, Bartzelona.

Traverso, E. (2007): *El pasado. Instrucciones de uso. Historia, memoria, política*, Marcial Pons, Madril.

Artikuluak

Asmann, A. (2014): «La construcción de la memoria cultural», *Acta poética*, 35. bol., 2. zk., 187-214.

Esteban, M.L. (2018): «Herida de política y cárcel. El relato encarnado de una activista», *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, LXXIII. bol., 2. zk., 343-363.

2.irudia - Gorpuen kea gaseatu berritan.
Iturria - Huberman, D. (2004): *Imágenes pese a todo: Memoria visual del Holocausto*, Paidós Ibérica, Madril



⁸ Sontag, S. (2006): *Sobre la fotografía*, Alfaguara, Madril.

⁹ Unai Romanoren tortura-kasuaren inguruan informazio-jario handia dago sarean gehiago sakondu nahi duenarentzat.

¹⁰ *Deia* egunkarian esaterako, Unai Romanoren torturak estrategia politiko bati erantzuten zioten asmakeriak zirela aipatzen zuen erabiltzaile batek: <<https://foros.deia.eus/viewtopic.php?t=5804>>.